


Euskal AEko BPGk urte arteko %1,5eko murrizketa izan zuen 2013ko bigarren hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoaren aldean, aldakuntza negatiboa izan da, baita ere, %-0,1

Euskal AEko BPG %1,5 murriztu zen urte artean 2013ko bigarren hiruhilekoan, Eustatek landutako datuen arabera. Espainiako ekonomiaren beherakada %1,6 izan zenez INE-ren zenbatespenaren arabera, hamarren bat gutxiago murriztu da Euskal AEkoa.

Euskal AEko BPGk hiruhileko arteko %0,1eko murrizketa izan du 2013ko bigarren hiruhilekoan. Hiruhilekoen artekoa Espainiako ekonomiak edukitako berbera izan da.

1. grafikoa. BPG m/p. Urte arteko hazkunde-tasak. (%)



	IH 10	IIH 10	IIIH 10	IVH 10	IH 11	IIH 11	IIIH 11	IVH 11	IH 12	IIH 12	IIIH 12	IVH 12	IH 13	IIH 13
EUSKAL AE	-0,6	0,6	0,9	0,7	0,6	0,5	0,3	-0,3	-1,1	-1,7	-2,0	-2,0	-1,9	-1,5
ESTATUA	-1,4	-0,1	0,2	0,5	0,6	0,3	0,0	-0,6	-1,2	-1,6	-1,7	-2,1	-2,0	-1,6
EUROPAKO BATASUNA-28	1,0	2,2	2,4	2,3	2,6	1,8	1,5	0,9	0,1	-0,3	-0,5	-0,7	-0,7	0,0
EURO EREMUA	1,0	2,2	2,2	2,2	2,6	1,7	1,4	0,7	-0,2	-0,5	-0,7	-1,0	-1,0	-0,5
USA	1,6	2,7	3,0	2,8	2,0	1,9	1,5	2,0	3,3	2,8	3,1	2,0	1,3	1,6

Iturria: Eustat - Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak - eta Eurostat

Eskaintzaren ikuspuntutik BPGren urte arteko murrizketa lau jarduera-sektore handiei zor zaie. Bai Lehen Sektorean, bai Industrian, bereziki Eraikuntzan jaitsi da jarduera-maila. Gauza bera gertatu zen Zerbitzuetan, apalago.

1. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2011	2012	2012				2013	
			I	II	III	IV	I	II
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	7,9	8,7	15,8	3,2	-2,0	16,3	-5,0	-1,6
INDUSTRIA ETA ENERGIA	1,6	-3,7	-3,2	-4,1	-4,2	-3,8	-3,0	-2,7
Manufaktura-industria	3,0	-3,7	-2,4	-4,5	-4,4	-4,2	-3,2	-2,5
ERAIKUNTZA	-7,9	-8,2	-9,3	-8,6	-7,7	-7,1	-6,8	-6,6
ZERBITZUAK	0,9	-0,4	0,5	-0,1	-0,7	-1,0	-1,0	-0,7
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-0,6	-1,1	-0,3	-1,0	-1,3	-1,9	-2,0	-1,6
Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb.	3,5	0,4	2,6	1,4	-0,9	-1,7	-1,7	-0,4
Gainerako zerbitzuak	0,4	-0,3	-0,2	-0,4	-0,3	-0,2	-0,2	-0,1
Oinarrizko prezioei ERANTSITAKO BALIO GORDINA	0,3	-1,7	-1,1	-1,7	-2,1	-2,0	-1,9	-1,6
Produktuen gaineko zerga garbiak	-0,2	-1,1	-0,3	-1,1	-1,2	-1,6	-0,9	-0,5
BPGda merkatuko preziotan	0,3	-1,6	-1,1	-1,7	-2,0	-2,0	-1,9	-1,5

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Lehen Sektoreak bilakaera negatiboa izan du, bai urte artean (%-1,6), bai hiruhileko artean (%-24,9).

Industriak zazpigarren hiruhilekoz jarraian jokaera negatiboa (%-2,7) izan du urte artean; 2011ko hirugarren hiruhilekotik aurreneko aldiz hiruhilekoen arteko positiboa (%0,1) izan du. Horretaz gain urte arteko beherakada hiru hamarrenez arindu da.

2. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2012				2013	
	I	II	III	IV	I	II
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	-2,2	-27,5	25,3	31,0	-20,1	-24,9
INDUSTRIA ETA ENERGIA	-0,9	-0,2	-0,8	-1,9	-0,2	0,1
Manufaktura-industria	0,6	-1,9	-1,2	-1,7	1,5	-1,2
ERAIKUNTZA	-2,9	-3,1	-1,6	0,3	-2,6	-2,9
ZERBITZUAK	0,1	0,1	-0,6	-0,6	0,1	0,5
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-0,2	-0,5	-1,0	-0,2	-0,3	-0,2
Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb.	1,7	0,2	-0,1	-3,4	1,7	1,4
Gainerako zerbitzuak	-0,6	0,4	-0,7	0,7	-0,6	0,4
Oinarrizko prezioei ERANTSITAKO BALIO GORDINA	-0,4	-0,4	-0,6	-0,6	-0,4	-0,1
Produktuen gaineko zerga garbiak	-2,3	-0,3	0,8	0,2	-1,7	0,1
BPGda merkatuko preziotan	-0,6	-0,4	-0,4	-0,5	-0,5	-0,1

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Eraikuntzako murrizketa arindu egin da; hiruhileko honetan eta urte artean %6,6. Jaitsiera hau aurreko hiruhilekoa baino bi hamarren txikiagoa da. Hiruhilekoen arteko tasa (%-2,9) aurrekoa baino hiru hamarren handiagoa da.

Zerbitzuetan urte arteko %0,7ko jaitsiera dugu, 2013ko lehen hiruhilekoan baino hiru hamarren gutxiago, 2012. urtean zehar izandako jarduera-galera leundu delarik. Hala, hiruhilekoen artean hazkunde dago, %0,5.

Urte artean, Zerbitzuen sektoreko hiru azpisektoreetan tasa negatiboak dauzkagu.

Urte artean Zerbitzuetako jarduera-jaitsierarik aipagarriena **Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioan** da, %-1,6, eta ondoren **Administrazio Publikoa, Hezkuntza, Osasungintza eta Gizarte zerbitzuak** adarrean, %-0,4. **Gainerako zerbitzuetan**, non besteren artean jarduera profesionalak, finantzetakoak eta aseguruetoakoak dauden, negatiboa da urte artekoa, %-0,1.

Hiruhileko artean hazkunderik handiena **Administrazio Publikoa, Hezkuntza, Osasungintza eta Gizarte zerbitzuak** adarrean dugu, %1,4. **Gainerako zerbitzuetan** %0,4ko hazkundera. **Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioan**, seigarren hiruhilekoz jarraian negatiboa da hiruhileko artekoa, %-0,2.

Sektore-agregatuaren joerak Balio Erantsiaren urte arteko bilakaera negatiboak ekarri ditu, %-1,6 urte artean eta %-0,1 hiruhileko artean. Bai urte artekoa, bai hiruhileko artekoa hiru hamarren gutxiagoz murriztu dira 2013ko lehen hiruhilekoaren aldean.

3. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2011	2012	2012				2013	
			I	II	III	IV	I	II
AZKEN KONTSUMOKO GASTUA	-0,4	-1,2	-0,3	-1,8	-1,3	-1,4	-1,2	-1,1
Etxeguneen azken kontsumoko gastua eta EZMAEDE	-0,7	-1,3	-0,8	-1,8	-1,1	-1,5	-1,7	-0,9
Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua	0,6	-0,8	1,5	-1,7	-2,1	-1,1	0,5	-2,1
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	-2,3	-6,3	-6,6	-6,7	-5,6	-5,9	-4,7	-4,0
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	2,9	-5,5	-5,2	-6,0	-5,2	-5,7	-2,8	-1,1
Gainerako kapital-eraketa gordina	-4,4	-6,6	-7,2	-7,0	-5,8	-6,0	-5,5	-5,3
BARNE-ESKARIA	-0,9	-2,4	-1,8	-2,9	-2,3	-2,4	-2,0	-1,8
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	0,9	-3,3	-2,3	3,4	-5,6	-8,1	-6,7	2,9
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	-0,9	-4,2	-3,3	1,1	-5,8	-8,4	-6,6	2,3
BPGda merkatuko prezioetan	0,3	-1,6	-1,1	-1,7	-2,0	-2,0	-1,9	-1,5

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Eskariaren aldetik, berriz ere kanpo-sektoreak ekarpen positiboa egin dio BPGren hazkunderari; bai esportazioetan, bai inportazioetan urte arteko eta hiruhilekoen arteko positiboak dauzkagu, esportazio-datuok dinamikoagoak direlarik.

Familia-etxeen azken kontsumoaren gastuan (Kontsumo pribatuan), aurreko hiruhilekoetan bezala desazelerazioa dago, apaldua: %0,9ko murrizketa aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Jaitsiera hau zortzi hamarren txikiagoa da aurreko hiruhilekokoa baino. Hiruhileko artean hazkunde-tasa ezdeusa izan da, aurreko hiruhilekoan %0,1 jaitsi zelarik.

Kontsumo Publikoa (Administrazio Publikoen Azken Kontsumoko Gastua) berriz ere tasa negatiboetan dugu, %-2,1, lehen hiruhilekoan urte artekoa positiboa izan ondoren. Hiruhileko artean jaitsiera areagokoa da, %-4,3.

Administrazio Publikoen Azken Kontsumo Gastuak eta **Familia-etxeen Azken Kontsumo Gastuak** baturik **Azken Kontsumo Gastuaren** %1,1eko jaitsiera ekarri dute. Aurreko hiruhilekoaren aldean ehuneko puntu bateko jaitsiera dugu.

Kapital eraketa gordinean (Inbertsioan) jaitsiera dago berriz urte artean (%-4,0), gutxixeago aurreko hiruhilekoan (%-4,7) baino. Hiruhilekoen artean jaitsiera dago baita ere, %-0,4. Kapital Eraketa Gordinaren bi osagaietan, ekipo-ondasunetan eta eraikuntzan, tasak negatiboak dira urte

artean. Hiruhileko artean, ekipo-ondasunetako inbertsioaren bilakaera (%1,0) hobea da eraikuntzari lotutakoarena (%-1,1) baino.

Barne Eskaria, zeina osatzen baitute Azken Kontsumoko Gastuak eta Kapital Eraketa Gordinak, gutxiago murriztu da 2013ko lehen hiruhilekoan baino. Urte artean %1,8ko jaitsiera dago hiruhileko honetan; %2,0 aurreko hiruhilekoan.

4. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2012				2013	
	I	II	III	IV	I	II
AZKEN KONTSUMOKO GASTUA	0,6	-1,0	-0,2	-0,8	0,8	-1,0
Etzeguneen azken kontsumoko gastua eta EZMAEDE	0,0	-0,9	0,2	-0,9	-0,1	0,0
Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua	2,7	-1,7	-1,4	-0,7	4,4	-4,3
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	-2,5	-1,2	0,4	-2,8	-1,2	-0,4
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	-2,5	-0,7	-0,4	-2,2	0,5	1,0
Gainerako kapital-eraketa gordina	-2,6	-1,3	0,8	-3,1	-2,0	-1,1
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	-0,3	-2,5	-0,7	-4,8	1,3	7,4
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	0,4	-3,3	-0,1	-5,7	2,6	5,9
BPGda merkatuko prezioetan	-0,6	-0,4	-0,4	-0,5	-0,5	-0,1

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Kanpo-sektorearen ekarpena BPGren bilakaerari positiboa izan da eta aurreko hiruhilekoan baino areagokoa. Kanpo-saldoa positibo egin dute ondasun eta zerbitzuen urte arteko bilakaera positiboak, %2,9, eta inportazioen %2,3koak.

BPGren jaitsierak, bai urte artekoak, bai hiruhileko artekoak behera eragin dio enplegu-mailari, **Dedikazio Osoko Baliokidetzako Lanpostuetan** neurturik. Urte artean enplegua %2,5 jaitsi da. Hiruhileko artean, %0,1 jaitsi da.

Enplegua, urte artean, jarduera-adar guztietan galdu da. Hiruhileko artean Lehen Sektoreak eta Zerbitzuek bakarrik izan dute hazkunderik, %4,1 eta %0,3. Industria %4,9 jaitsi da urte artean, erritmoa moteltzen delarik, aurreko hiruhilekoaren aldean %0,9 jaitsi da. Eraikuntzan enpleguan jaitsierak areagokoak dira Industrian baino. Zerbitzuetan urte arteko eta segidako zazpigarren jaitsiera dago, %0,6. Hiruhileko artean eta bigarren hiruhilekoz jarraian enplegu-hazkundera dugu bigarren hiruhilekoan, %0,3. Lehen Sektorean ere jaitsi da enplegua urte artean , %-4,0.

Lurraldeetako BPGri erreparatuz gero, urte artean Arabakoa %1,9 murriztu da eta %1,4 Bizkaian eta Gipuzkoan. Hiruhileko artean, Araban eta Bizkaian %0,1eko jaitsiera; Gipuzkoan aldaketarik ez.

Ohar metodologikoa: 2013ko bigarren hiruhilekoko honetan, 2011 urteko behin-betiko datuak ekarri dira, eta 2012koak, Euskal AEko Kontu ekonomikoen aurrerapena; honek guztiak 2011ko lehen hiruhilekotik aurrera birzenbatespenak sorrarazi ditu hiruhilekoko serietan.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen gaineko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen gaineko datu-bankua